

Donostia-San Sebastian izango da Adineko Pertsonen Hiri Lagunkoien Mundu Sarean sartzen den Estatuko lehenengo hiria.

- Adineko Pertsonen Hiri Lagunkoien Mundu Sarean sartuko den Estatuko lehenengo hiria Donostia izango da. Matia Fundazioak, Donostiako Udaleko Gizarte Ongizate Departamentuak eta Donostiako Plan Estrategikoak bideratu dute hiria horretara.
- Inkorporazioa bultzatzeko, aipatutako hiru erakundeek hitzaldi bat antolatu dute, *“Adineko Pertsonen Hiri Lagunkoien Mundu Sarea”* izenekoa. Hitzaldia martxoaren 3an izango da, Udaletxeko Ekitaldi Aretoan, eta parte-hartzaileetako bat Alexandre Kalache doktorea da, OMEko (Osasunaren Mundu Erakunde) aditu eta Hiri Lagunkoien proiektuaren sortzailea.
- Duela gutxi aurkeztutako Matia Zahartzaroko Berrikuntza Guneak bultzatu eta proposatu duen aurreneko proiektua da hori.
- Proiektuaren bidez, Donostiako Udalak 2016an Europako Kultura Hiriburua izateko hautagaitza sendotu nahi du.

(Donostia, 2009ko otsailaren 25a). Matia Fundazioak, Donostiako Udaleko Gizarte Ongizate Departamentuak eta Donostiako Plan Estrategikoak bideratu dute Donostia hiria Adineko Pertsonen Hiri Lagunkoien Mundu Sarean (Age-friendly Cities - AFC) sartzera. Proiektua Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) sustatua da eta, gaur egun, kontinente guztietako 22 herrialdetako 35 hirik parte hartzen dute horretan. Espainiak oraingoz ez dauka hiririk sarean,

horregatik jaso du parte hartzeko gonbidapena. Hala, Gipuzkoako hiriburua Mundu Sarean sartzen den unean, proiektu horretan parte hartzen duen Estatuko lehenengo hiria izango da.

Inkorporazioa bultzatzeko eta laguntzeko xedez, jardunaldi bat antolatu da, martxoaren 3an. Jardunaldi horretako parte-hartzaileetako bat Alexandre Kalache doktorea izango da, Osasunaren Mundu Erakundeko aditua eta Adineko Pertsonen Hiri Lagunkoien proiektuaren egileetako bat, hain zuzen.

Hiri lagunkoien proiektuaren helburua da zahartze aktiboa sustatzen duten hiriak sortzea. Horretarako, hiri horietan osasunaren, parte-hartzearen eta segurtasunaren inguruko aukerak optimizatzen dira, pertsonak zahartzen direnean haien bizi-kalitatea hobetzeko xedez.

Duela gutxi aurkeztutako Matia Zahartzaroko Berrikuntza Guneak bultzatu du Donostia Adineko Pertsonen Hiri Lagunkoien Mundu Sarean sartzeko ekimena. Izan ere, Matia Gunearen ikerlanen ardatz nagusietako bat “zahartze osasungarri eta gogobetegarria garatu eta sustatzea” da. Matia Gunearen eginkizuna zahartzearekin zerikusia duten eremu guztietako ezagutza sortzea da, zahartze aktibo eta osasungarriaren paradigmatik abiatuta, honako emaitza hauek lortzeko: 65 urtetik gorako herritarren ongizatea, gogobetetasuna eta autonomia hobetzea; mendekotasun-egoeren prebentzioa sustatu eta haien agerpena atzeratzea; gizarte-kohesioa areagotzea; herritarren balioak (solidarioak, etikoak, kulturalak..) aberastea; proiektuak xede dituen pertsonen parte-hartzea eta produktibitate soziala handitzea; eta adineko herritarren osasuna hobetuz, osasun-gastuak gutxitzea.

Hala, Donostia Adineko Pertsonen Hiri Lagunkoien Mundu Sarean sartzeko bultzada Matia Guneak sustatutako gizarte-berrikuntzako lehenengo proiektua izan da.

Donostiak ibilbide egina eta esperientzia hartua du Hiri Lagunkoien Sareak sustatutako balio eta ekintzetan. Baina, horrez gain, Europako Kultura Hiriburua izateko hautagaitza sendotzeko aukera ezin hobea ere izan daiteke integrazioa hiriarentzat, horri esker herritarrek kulturaren, gizartearen eta ekonomiaren inguruko jardueretan parte hartzea erraztuko duten ekimenak gauzatuko baitira eta, oro har, hiriko bizi-kalitateak hobera egingo baitu

Proiektuaren sorrerako helburu nagusiak honako hauek dira: komunitatean parte hartzeko prozesuak sortzea; herritarren (adinekoen zein gainerakoek) bizi-kalitatea hobetzeko aldaketak egitea udalerriko eskumen-eremuetan; eta adineko pertsonen hiriko bizi-kalitatea hobetzeko eskain dezaketena aprobeztatzea. Helburu horiek betetzeko, proiektuak bere sustatzaileak eta gizarte osoa inplikatzeko dituzten ekintza batzuk jasotzen ditu. Ekintza horien bidez, Donostia adineko pertsonen beharretara egokituko da arlo guztietan, Hiri Lagunkoi bilakatzeko. Ekintza horiek

hainbat eremu barne hartzen dituzte, hala nola herritarren parte-hartzea (parte-hartzea sustatzea), arkitektura-eremua (garraio publikoaren bidez hiriko leku guztietara iristea), prebentzioa eta segurtasuna (gune publikoak garbi eta txukun egotea; espaloiak egoera onean egotea, zabalak, irristagaitzak eta oztoporik gabe; enplegatutak kontratatu, sustatu eta trebatzean adinagatiko diskriminazioa baztertzea), kontzientziarioa (prestakuntza-ekintzak sustatu eta antolatzea: foroak, jardunaldiak, ikastaroak, kongresuak...) eta gizarte- eta osasun-arretaren hobekuntza (etxeko laguntzarako eta zainketa pertsonalerako behar beste zerbitzu egotea), besteak beste. Ildo horretan, Donostiako Udala oztopoak kentzeko eta irisgarritasuna hobetzeko programak garatzen ari da, Irisgarritasun Planaren bidez, etxebizitza programa berritzailearen bidez zeinak adinekoentzat apartamentuak sustatzen ditu eta Plus 55 programa jarduera kulturalen bidez, Hiri Lagunkoiei dagozkien eskakizunak betetzeko.

Proiektua aurrera eramateko prozesuan hainbat eragilek esku hartu behar dute: adineko pertsonak berek, administrazioak, boluntarioek, zerbitzu-hornitzaileek, merkatariek, arduradun politikoek, antolatzaileek eta, oro har, biztanleria osoak.

Proiektuaren filosofia

Matia Zahartzaroko Berrikuntza Guneak, Donostiako Udaleko Gizarte Ongizateko Departamentuak eta Donostiako Plan Estrategikokoak bultzatutako proiektuak honako printzipio hau du oinarri: hiriak eta adineko pertsonen kopurua azkar hazten ari dira mundu osoan. Izan ere, iragarritako zahartze demografikoa inoiz ezagutu gabeko fenomeno izango da eta erronka sozio-ekonomiko handiak sorraraziko ditu. Hala, 2050ean, adinekoen kopurua gaur egungoaren bikoitza izango da: guztira, 1.500.000 milioi lagunek edukiko dituzte 65 urte baino gehiago Euskal Herri mailan. Espainian, gaur egun, 7.633.707 pertsona daude adin horretatik gora (INE 2008), eta horietatik % 30ek 80 urtetik gora du. Aldi berean, urbanizazio-prozesua ere aurrera doa eta, 2030erako, herritar espainiarren % 81,7 hiritan biziko dela aurreikusita dago.

Gizarte modernoak gero eta zaharragoak dira eta, horietan, adineko pertsonak ezinbesteko baliabideak dira familiarentzat, komunitatearentzat eta ekonomia iraunkorarentzat, esate baterako borondatezko lanaren bidez, haien esperientzia eta ezagutza guztien berri emanez, euren familiei zaintzeko zereginetan lagunduz edo saritutako lanak eginez. Erantzun gisa, OMEk Adineko Pertsonen Hiri Lagunkoien Mundu Sarea jarri du abian, hiriei eta herriei adinekoen ahalmen guztia aprobetxatzen laguntzeko.

Proiektuaren onurak

Adineko Pertsonen Hiri Lagunkeiek euren egiturak eta zerbitzuak berregituratzen dituzte herritarren behar eta gaitasunetarako irisgarriak izan daitezen, eta haien parte hartzea sustatzen dute. Era horretan, Donostiak adin guztietako biztanleentzat diseinatutako hiria izan nahi du, zerbitzuak herritar guztien esku jartzen dituen hiria, hain zuzen. Hiri Lagunkeiek hainbat abantaila eta onura eskaintzen dizkiete herritarrei, hala nola oztoporik ez duten eraikinak eta kaleak, ezintasunen bat duten pertsonen (gazte zein adinekoen) mugikortasuna eta independentzia handitzeko. Orobat, proiektuari esker, auzoak leku seguruak izango dira, non, haurrak, emakumeak eta adineko pertsonak konfiantza osoz kalera irtengo diren, gizarteari edo aisiari buruzko edozein ekimenetan parte hartzeko. Horrelako hirietan, gainera, adineko pertsonentzako komunitatearen laguntza eta osasun-zerbitzu egokiak daude eta, ondorioz, familiak presio arinagoa dute zeregin horiek betetzeko. Hiri lagunkeiei esker, komunitate osoak ateratzen dio onura adineko pertsonen borondatezko edo saritutako zereginetan parte hartzeari, eta tokiko ekonomiak ere etekina ateratzen dio adinekoek komunitatean egindako lanari.

Adineko Pertsonen Hiri Lagunkoien Mundu Sarean parte hartzen duten hiriak



AMERICA

- Argentina, La Plata
- Brazil, Rio de Janeiro
- Canada, Halifax
- Canada, Portage La Prairie
- Canada, Saanich
- Canada, Sherbrooke QB
- Costa Rica, San Jose
- Jamaica, Kingston
- Jamaica, Montego Bay
- Mexico, Cancun
- Mexico, Mexico City
- Puerto Rico, Mayaguez
- Puerto Rico, Ponce
- USA, Portland

ÁFRICA

- Kenya, Nairobi

OESTE MEDITERRÁNEO

- Jordania, Amman
- Lebanon, Tripoli
- Pakistan, Islamabad
- EUROPA
- Alemania, Ruhr
- Irlanda, Dundalk
- Italia, Udine
- Rusia, Moscow
- Rusia, Tuymazy
- Suiza, Geneva
- Turquía, Istanbul
- UK, Edinburgh
- UK, London

OESTE PACIFICO

- Australia, Melbourne
- Australia, Melville
- China, Shanghai
- Japón, Himeji
- Japón, Tokyo
- SUR-ESTE ASIA
- India, Delhi
- India, Udaipur

Alexandre Kalache doktorearen hitzaldia.

Eguna:	martxoak 3. Ordua: 19:00 - 20:30
Lekua:	Donostiako Udala Ekitaldi Aretoa (Alderdi Ederreko sarrera)
Sarrera:	Doan – Plaza kopuru mugatua, izen-emateko ordenaren arabera
Izen-emateak:	Tel.: 943 428 086 E-mail: estrategia@donostiafuturra.net

Alexandre Kalacheren CVa



Osasunaren Mundu Erakundeko (OME) Zahartze eta Bizi-Zikloa Programaren (*Ageing and Life Course Programme-ALC*) Zuzendaria Ginebran.1995tik OME-aren *Department of Health Promotion, Non-Communicable Disease Prevention and Surveillance* koordinatzailea da baita ere.

Jatorriz brasildarra, Gizarte Medikuntzan lizentziatua da eta Minbizi Epidemiologian Doktoretza egin zuen Ingalaterran.

Zahartze Gaixotasunen Unitateko (*Epidemiology of Ageing Unit*) arduraduna eta fundatzailea izan zen *London School of Hygiene and Tropical Medicine-LSHTM*-en. Oxford Unibertsitateko irakasle izan zen *Social Medicine* sailaren barne. Gaur egun, "Adineko Pertsonen Hiri Lagunkoien Mundu Sarea"-ren koordinatzailea da OME-aren barne dagoen *Ageing and Lifecourse Program* programan.

Matia Zahartzaroko Berrikuntza Gunea

MATIA eta INGEMA Fundazioen Misioa eta Ikuspegia eta 128 urtetan metatutako esperientzia eta abiapuntu sendo eta fidagarria aintzat hartuta, bi fundazioek proiektu handi bat gauzatzeko ekimena sortu dute, eragile publiko eta pribatuen ahaleginak batuta, hiru erronka hauek erantzungai dituztela:

- Zahartzarora iristen diren pertsonen garapen positiboa eta ongizaterik handiena eskaintzea.
- Adineko pertsonen garapen pertsonalerako eta haien beharrak betetzeko baldintzarik onenak emango dituen espazio edo inguru sozial iraunkorra sortzea.
- Zientziaren, teknologiaren eta ekonomiaren alorretan munta handiko jarduera abiatzea, adineko pertsonen osatutako eremu azaleratu berriari begira.

Gauzak horrela, etorkizuneko ikuspegia honela adierazten da:

IKUSPEGI BERRIA

“Datozen bost urteetan zahartzeari buruzko Europako erreferentziarik kualifikatuena eta berritzaileena izatea”.

HELBURUA

“Zahartzearen alorrean, diziplina anitzeko ikerketa-planteamendu zorrotza abiapuntu hartuta eta agente laguntzaile eta aliantza ugari parte hartuta, ekintza, produktu eta zerbitzu berritzaileak gauzatuko dituen proiektua garatzea, eta proiektu hori gizartera helaraztea, honako lau eremu hauetan eragin nabarmena sortuz: berrikuntza sozialaren, berrikuntza teknologikoaren, berrikuntza sozio-sanitarioaren eta jarduera ekonomikoaren eremuetan”.

TRESNA

Aipatutako helburua eta ikuspegia erdiesteko, Lugaritzen, Donostian, berrikuntza-gunea sortzea deliberatu zuten MATIAk eta INGEMAK. Gune horri, fundazioen garapenaren bidez eta **zientziaren, teknologiaren, erakundeen eta gizartearen arloetako hainbat laguntzaile elkartuta**, ahalik eta potentzialtasunik handiena aterako diote.

Jarduera-ardatzak

- Luzetarako ardatza: oinarritzko ezagutza.
- I. ardatza: zahartze osasungarria.
- II. ardatza: errehabilitazioa eta ahultasunaren eta mendetasunaren konpentsazioa
- III. ardatza: arreta-zerbitzu berriak diseinatu eta garatzea.
- IV. ardatza: Geronto-teknologia.

- V. ardatza: Produktu eta zerbitzu berrietarako enpresa-ekimenak sustatzea.
- VI: ardatza: Ezagutzaren transferentzia.

Matia Fundazioa

Matia Fundazioa gizarte-izaerako erakunde pribatua da. Adineko pertsonen eta ezintasunen inguruko asistentzia-lana betetzen du 1881. urteaz geroztik, Gipuzkoako lurralde historikoan.

Azken urteetan erakunde moderno bihurtu da Matia, eta Estatu mailako erreferentzia da adineko pertsonentzako arretari dagokionez. Ildo horretan, kalitateko zerbitzuak, kudeaketa-eredu aurreratua, aholkularitza teknikoa eta prestakuntza eskaintzeaz gain, zahartzeari aplikatutako ezagutzaren alorrean aitzindaria da

Hain zuzen, ikerketa aplikatua indartzeko xedez, Ingema Fundazioa sortu zuen Matiak, 2002. urtean. Zentro hori Zientziaren eta Teknologiaren Euskal Sarean integratuta dago, Osasun Ikerketako Unitate gisa, eta haren bidez, Matiak I+G proiektuetan parte hartzen du, Europako Batasunaren VI. eta VII. programen barruan.

➤ Matia zenbakitan:

- 776 plaza dituzten 7 egoitza-zentro.
- 195 plaza dituzten 7 eguneko zentro.
- 103 ohe dituen ospitale geriatrikoa.
- Ezintasun larrian espezializatutako zentroa, 78 plaza dituena.
- Gizarte Baliabideko Zentro bat, Estatu mailako eredu bakar eta berritzailea duena.
- Errehabilitazio Anbulatorioko Zerbitzu bat, 7 zentro propiotan eskainia eta 5.000 lagun artatzen dituena, urtean 192.000 tratamendu eskainiz.
- Beste zerbitzu aitzindari batzuk: Oroimen eta Alzheimer Unitatea (UMA) eta Orientazio Gerontologikoko Zerbitzua (SEOG).
- Giza taldea: 500 langile.
- Ingema, zahartzeari aplikatutako I+G+B egiteko zentroa.

Matia Fundazioa, bere Ikerketa Institutua den Ingema Fundazioarekin batera, Zahartzaroko Berrikuntza Gunearen sorrera bultzatu zuen Donostian, 2009ko otsailean. Proiektu horri esker, erakundea eta Gipuzkoako hiriburua nazioarteko erreferentzia nagusietako bat bihurtuko dira zahartzearen inguruko ikerketa aurreratuan, zerbitzuetan eta bikaintasunezko prestazioetan.

Donostiako Udala eta 2016ko Europako Kultura Hiriburua

Donostiako Udala zahartze osasungarria sustatzeko hainbat programak gauzatzen ari da, hala nola etxebizitzak (adinekoentzat apartamentuak), gizarte zerbitzuak, arkitektura-oztopoak kentzea eta irisgarritasuna hobetzea, eta kultura eta aisia aktiboa. Guzti hau hiria Adineko Pertsonen Hiri Lagunkoiei dagozkien beharretara egokitzeko xedez.

Udalaren irisgarritasunaren Planaren helburu nagusia da “herritar guztiei beregain mugitzeko aukera emango dien ingurunea antolatzea, pertsonen beharrak GUZTIOK erabil ditzaketen instalazioetan integratuta”.

Hiri Lagunkoien proiektuan, besteak beste, Irisgarritasun Planaren esku-hartzeko eremuak jasota daude.